


Euskal AEn bizi den 18 urtetik gorako biztanleriaren % 50 baino gehiago ezkontuta edo erregistratutako batasun bidez lotuta dago

20 urtetik 29 urtera bitartean, pertsonen % 92 baino gehiago ezkongabeak dira

Euskal AEko 18 urteko eta hortik gorako biztanleriaren % 50,9, 935.358 pertsona, ezkontuta edo erregistratutako batasun bidez lotua dago 2022ko urtarrilaren 1ean, Eustaten datuen arabera. Ondoren, kopuru aldetik, biztanleria ezkongabea (634.326 pertsona, % 34,5) eta alarguntasun-egoeran dauden biztanleak (143.159 pertsona, % 7,8) daude, eta, azkenik, biztanleria dibortziatua edo legez banandua (123.716 pertsona, % 6,7).

Hiru lurralde historikoetan biztanleria ezkonduaren proportzioa da handiena, eta ehunekoak oso antzekoak dira: Bizkaian eta Gipuzkoan, bi kasuetan, % 51 dira, eta Araban zertxobait gutxiago, % 50,6. Bestalde, handiagoa da ezkontuta dauden gizonen proportzioa emakumeena baino (% 52,7 eta % 49,3, hurrenez hurren). Adin-taldean arabera, ezkonduen proportzioak nabarmen egiten du gora 30 urtetik gora, eta proportzio altua mantentzen da 69 urtera bitartean.



Lurralde-mailan, zenbait alde daude, eta Arabak du biztanleria ezkongabearen proportziorik handiena (% 35,7koa, lurralde historiko guztietakoa % 34,5ekoa izanik). Bizkaia du biztanleria alargunaren proportziorik handiena (% 8,4) eta Gipuzkoak Euskal AEko guztizko proportzioen antzekoenak ditu (% 7,8). Dibortziatutako edo legez banandutako biztanleriaren proportzioa antzekoa da hiru lurraldeetan: % 6,5ekoa Gipuzkoan, % 6,8koa Bizkaian eta % 6,9koa Araban; guztiak hiru lurraldeetako batez bestekoaren inguruan dabilta (% 6,7).

Emakumeek gizonak baino alarguntasun- eta dibortzio-ehuneko handiagoak dituzte

Gizon eta emakumeentzako egoera zibilaren banaketak zenbait alde ditu, eta alde nabarmenena alarguntasun-egoeran dago, izan ere, emakumeen proportzioa (% 12,7) gizonena baino askoz ere handiagoa da (% 2,5). Alde hori areagotu egiten da adin talde zaharrenetan, eta, bereziki, 60 urtetik gora, emakume alargunen ehunekoak oso nabarmen egiten baitu gora (80 urtetik gorakoan % 63).

Euskal AEko 18 urteko eta gehiagoko biztanleria, egoera zibilaren arabera, lurralde historiko eta sexuari jarraiki. 2022/01/01


	Euskal AE			Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	1.836.559	881.041	955.518	274.035	133.250	140.785	965.034	458.787	506.247	597.490	289.004	308.486
Ezkontgabea	634.326	338.947	295.379	97.782	52.347	45.435	325.320	172.433	152.887	211.224	114.167	97.057
Ezkontdua edo lotura erregistratua	935.358	464.461	470.897	138.571	68.959	69.612	492.261	244.244	248.017	304.526	151.258	153.268
Alarguna	143.159	21.622	121.537	18.689	3.177	15.512	81.404	12.397	69.007	43.066	6.048	37.018
Legez dibortziatua edo banandua	123.716	56.011	67.705	18.993	8.767	10.226	66.049	29.713	36.336	38.674	17.531	21.143

Data 2024ko Uztailaren 11

Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Biztanleriaren egitura

Gainerako egoera zibilei dagokienez, 18 urtetik gorako gizonen % 52,7 ezkontuta daude, eta emakumeen kasuan % 49,3; gizonen % 38,5 eta emakumeen % 30,9 ezkongabeak dira. Azkenik, emakumeen artean gizonen artean baino handiagoa da dibortziatuen eta bananduen proportzioa (% 7,1 eta % 6,4, hurrenez hurren), eta guztizkoaren antzeko proportzioak dira (% 6,7).

Euskal AEko biztanleriaren banaketa egoera zibilaren arabera, adin-talde eta sexuari jarraiki (%). 2022/01/01



Egoera zibilean alderik handienak adin-taldeetan daude

20 eta 29 urte bitartean biztanleriaren gehiengoa ezkongabea da (% 92,3), eta ezkonduen ehunekoa % 7,4koa da. 30 urtetik 39 urtekoen taldean, ezkonduen ehunekoak nabarmen egiten du gora (% 38,9), eta ezkongabeenak behera egiten du (% 57,8). 40 urtetik 49 urtera bitarteko eta 50 urtetik 59 urtera bitarteko adin-taldeetan, biztanleriaren gehiengoa (% 57,2 eta % 62,9, hurrenez hurren) ezkondata dago, eta nabarmen egiten du behera adin-talde horietan ezkongabeen ehunekoak.

60 urtetik 69 urtera eta 70 urtetik 79 urtera bitarteko adin-taldeetan ere ezkonduen ehunekoa handia da (% 69,5 eta % 67,7, hurrenez hurren), baina gora egiten hasten da alargunen ehunekoa, eta % 7ra iristen da 60 urtetik 69 urtera bitarteko adin-taldean eta % 18,1era 70-79 adin-taldean. 80 urtetik gorako taldean, pertsonen % 41,5 ezkondata dagoen arren, alargunen ehunekoak asko egiten du gora (% 47,1).

Egoera zibila eta eskualdeak

Arabako Kantaurialdea eta Goierri dira ezkonduen edo erregistratutako batasun bidez lotutako ehunekorik handiena dutenak (% 54tik gora), Euskal AEko ehunekoa nabarmen gaituz (% 50,9). Beste muturrean, ezkonduen ehunekoa nabarmen da baxuagoa Arabako Lautadan (% 49,9) eta Markina-Ondarroan (% 49,6), baita Donostialdean ere (% 49).

Ezkongabeei dagokienez, batez bestekoa (% 34,5) baino ehuneko handiagoak dituztenak dira Arabako Errioxa (% 36,6), Donostialdea eta Gorbeialdea (bi kasuetan % 36,5). Bestalde, Arabako Kantaurialdeak du ezkongabeen ehunekorik handiena (% 31,2), Durangaldearekin (% 32,5) eta Enkarterriekin (% 32) batera.

Euskal AEko 18 urteko eta gehiagoko biztanleria, eskualdearen arabera, egoera zibilari jarraiki. 2022/01/01

	Guztira	-Ezkongabea	Ezkondua edo lotura erregistratua	Alarguna	Legez dibortziatua edo banandua
Euskal AE	1.836.559	634.326	935.358	143.159	123.716
Añana	5.422	1.835	2.817	328	442
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	9.647	3.530	4.924	682	511
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	28.555	8.907	15.612	2.367	1.669
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	220.024	79.766	109.820	14.698	15.740
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	2.788	973	1.441	219	155
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	19.890	6.660	10.561	1.481	1.188
Bidasoa Behea / Bajo Bidasoa	64.658	22.084	32.915	4.482	5.177
Bilbo Handia / Gran Bilbao	727.205	245.908	366.800	63.308	51.189
Debarrena / Bajo Deba	45.427	15.197	23.912	3.684	2.634
Debagoiena / Alto Deba	52.017	17.947	27.585	3.989	2.496
Donostialdea	277.524	101.172	135.909	20.132	20.311
Durangaldea / Duranguesado	82.196	26.704	44.396	6.298	4.798
Enkartzioak / Encartaciones	26.930	8.629	14.226	2.231	1.844
Gernika-Bermeo	38.584	13.065	19.903	3.282	2.334
Gorri	55.478	18.383	30.190	4.075	2.830
Gorbeialdea / Etribaciones del Gorbea	7.599	2.771	3.957	395	476
Markina-Ondarroa	21.713	7.879	10.760	1.871	1.203
Plentzia-Mungia	48.516	16.475	25.615	2.933	3.493
Tolosaldea	40.256	14.655	20.709	2.760	2.132
Urola Kosta	62.130	21.786	33.306	3.944	3.094

Data 2024ko Uztailaren 11

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta exebizitzaren errolda. Biztanleriaren egitura

Alargunen proportzioagatik Bilbo Handia eta Markina Ondarroa nabarmentzen dira (% 8,7 eta % 8,6), Euskal AEko batez bestekoa gaindituz (% 7,8). Beste muturrean, alargunen ehunekorik baxuena Gorbeialdeak du (% 5,2), eta, ondoren, Plentzia-Mungia eta Añanak (% 6 bi kasuetan).

Azkenik, dibortziatuen edo bananduen ehunekoa handiagoa da Añanan (% 8,2) eta Bidasoa Beherean (% 8), autonomia-erkidegoko batez bestekoarekin alderatuta (% 6,7). Beste muturrean, Debagoiena da kategoria horretan ehuneko baxuena duena (% 4,8), Urola-Kosta eta Goierriekin batera (% 5 eta % 5,1, hurrenez hurren).

Ezkongabeen ehunekoa handiagoa da hiriburuetan

Euskal AEko hiru hiriburuetakoa –Bilbo, Donostia eta Gasteiz– egoera zibilari buruzko datuetan aldeak daude autonomia-erkidegoko batez bestekoarekin alderatuta.

Hiru hiriburuetan ezkongabeen ehunekoa Euskal AEko batez bestekoaren gainetik dago (% 34,5), ordena honetan: Donostia (% 38), Bilbo (% 36,5) eta Gasteiz (% 36,3).

Hiriburuetakoa ehunekoa Euskal AEko batez bestekoaren (% 50,9) azpitik dago ezkondata edo erregistratutako batasunean lotuta dauden pertsonen dagokienez: Bilbo eta Donostia dira ehuneko baxuenak (% 47,3), eta Gasteiz (% 49,7).

Alargunen ehunekoa autonomia-erkidegoko batez bestekoa (% 7,8) baino handiagoa da Bilbon (% 8,9). Eta bai Gasteizen (% 6,8) eta bai Donostian (% 7,3) ehunekoa batez bestekoa baino baxuagoa da.

Azkenik, dibortziatuta edo legez bananduta dauden pertsonen proportzioak oso antzekoak dira hiru hiriburuetan: Bilbon (% 7), Gasteizen (% 7,1) eta Donostian (% 7,3), guztietan Euskal AEko batez bestekoaren gainetik (% 6,7).

Laburbilduta, Euskal AEko hiriburuek ezkongabeen proportzio handiagoa eta ezkondata edo erregistratutako batasunean lotuta dauden pertsonen proportzio txikiagoa dute, Euskal AEko batez bestekoarekin alderatuta. Bilbo nabarmentzen da alargunen proportzio handiagoa izateagatik, eta Donostia eta Gasteiz dibortziatuta edo legez bananduta dauden pertsonen ehuneko handiagoa izateagatik.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62